

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Kultura, euskara eta kirol arloko dirulaguntzak emateko 2025eko deialdia onartzen duen 2025 ekainaren 4ko alkate ebazpenaren laburpena

BDNS (Identif.): 837578.

Diru-laguntza orokorreko buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convo-catoria/837578>).

Lehenengoa. Onuradunak

Pertsona fisiko edo juridikoak izango dira onuradun, baldin eta dirulaguntza ematea zilegi egiten duen egoeran badaude edo oinarri arautzaile hauetan eta deialdian aurreikusitako inguruabarrak betetzen badituzte eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta deialdian ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

Diru-laguntza eskatu ahal izateko, erakundeek eta/edo pertsonak, eskaera egiten duten egunean, honako baldintza hauek bete beharko dituzte, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 11. eta 13. artikuluetan eta Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko 3/1997 Foru Arauaren 5. artikuluan aurreikusitakoez gain:

- Pertsona juridikoen kasuan, legez eratuta egon beharko dute.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Ez dira onuraduntzat hartuko:

- Laguntza-ildo bereko aurreko deialdietan emandako dirulaguntzetatik eratorritako bete-behar guztiak bete ez dituzten erakundeak edo pertsonak.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan aipatzen diren arau-hausteengatik zehapena jaso duten erakundeak edo pertsonak, eta Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotako kasuetan sartzen direnak.

Bigarrena. Helburua

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen xedea honako proiektu eta jarduera hauek finantzatzea da, bai eta herritarrei eta erakundeei berdintasunaren, gardentasunaren, lehiaren, objektibotasunaren, emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatzeko helburuak eta irizpideak finkatzea ere, udalaren esku-hartzea osatze aldera:

Kulturaren arloan:

- 1) Adinekoentzat: prestakuntza artistikoa eta iraunkorra, aisialdiko eta denbora libreko jarduerak, bidaiak eta txangoak, etab.
- 2) Hezkuntzakoak, aisialdikoak eta denbora librekoak, haur eta/edo gazteei zuzenduak.
- 3) Ekimen, jarduera eta programa kulturaletarako eta prestakuntza artistikorako dirulaguntzak.

4) Arte-elkarte amateurretarako materiala erosteko laguntzak: material instrumentala, partituras, antzerki-materiala/jantziak, etab.

5) Ikuskizunak antolatu eta garatzeko dirulaguntzak.

6) Bisita kulturalak egiteko laguntzak.

7) Albisteen idatzizko edizioak edo formatu digitalean egindakoak sustatzeko eta garatzeko laguntzak.

8) Begiraleak eta animatzaileak (haurrak, gazteak, hirugarren adinekoak, etab.) prestatzeko programetan parte hartzeko bekak edo laguntzak.

Euskararen arloan:

1. Euskara ikasteko bekak.

2. Tokiz gaindiko proiektuen finantzaketa.

Kirolaren arloan:

1. Kirol-jardueren programetarako laguntzak.

2. Kirol-ekitaldiak antolatzeko eta garatzeko laguntzak.

3. Oinarrizko kirola sustatzeko laguntzak.

4. Goi-mailako kirolarientzako laguntzak.

Jarduerak batera finantzatzeko laguntzak dirulaguntza gisa emango dira, eta honako hauek bete beharko dituzte: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta Kanpezuko Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

2010eko irailaren 22ko Osoko Bilkuraren Erabakiaren bidez onartu ziren kultura, euskara eta kirol arloko dirulaguntzen oinarri arautzaileak (2010eko abenduaren 17ko ALHAO, 142 zk.).

Laugarrena. Zenbatekoa

Kulturaren arloan:

Diru-laguntza horiek emateko, indarrean dagoen aurrekontuko 6.400,00 euro erabiliko dira.

Euskararen arloan:

* Udalaz gaindiko bekak eta proiektuak (euskararen aldeko dirulaguntzak): 2.000,00 euro.

Kirolaren arloan:

Indarrean dagoen aurrekontuko 6.400,00 euro erabiliko dira dirulaguntza hauek emateko.

Gehienez 600,00 euro bideratuko dira goi-mailako kirolarientzako laguntzetarako.

Urte honetan aurkeztutako eskaerak ebatzi ondoren agortzen ez diren gastuen partidak agortu diren beste arloetara bideratu ahal izango dira.

Dirulaguntza guztiak borondatezkoak izango dira, eta ezin izango dira aurrekari gisa aipatu.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hogeita hamar eguneko epea, deialdiaren iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Santikurutze Kanpezu, 2025eko ekainaren 4a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO